ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko urriaren 28a, asteazkena • 124 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Hautaketa eta Garapenaren Zerbitzua

Vitoria-Gasteizko Udaleko Udaltzaingoko komisariorde kategoriara igotzeko hautaketa-prozesuaren deialdia eta oinarriak onestea

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko otsailaren 6an (2026ko otsailaren 20ko ALHAO, 20. zenbakia) eta 2026ko maiatzaren 22an (2026ko ekainaren 12ko ALHAO, 67 zenbakia), Vitoria-Gasteizko Udaleko udaltzaingoaren 2026ko lan-eskaintza publikoa onetsi zuen. Eskaini beharreko plazen artean, udaltzaingoko komisariorde izateko 4 plaza zeuden, 8003 kodeko komisariordea lanpostuari zegozkionak eta Segurtasun Saileko polizia-kidegoan zutenak destinoa. Plazek aurrekontu-estaldura dute, I. kapituluaren kargura.

Komisariordeen 4 lanpostu horiek betetzeko, beharrezkoa da lanpostu horiek barne-sustapeneko txandan eta oposizio-lehiaketa bidez betetzeko hautaketa-prozesuaren deialdia eta oinarriak onestea.

Deialdi hau xedapen hauen arabera egiten da: 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duena; 15/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoa; 315/1994 Dekretua, uztailaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren hautespen- eta prestakuntza-araudia onartzen duena; 58/2023 Dekretua, apirilaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko erregelamendua onartzen duena, eta hautaketa-prozesuan aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Horrela, bada, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak —Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— 127. artikuluan aitortzen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko ekainaren 22ko erabakiaren bitartez nire esku utzitako aginpidea betez, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehena. Komisariordeen 4 plaza sustapen-txandan eta oposizio-lehiaketaren bidez behin betiko betetzeko deialdia onestea. Plaza horiek A taldekoak dira, A2 azpitaldekoak, eta udaltzaingoaren eskala exekutiboan sartuta daude, komisariordearen kategorian, eta 3. hizkuntza-eskakizuna dute, derrigortasun-datarik gabea.

Bigarrena. Hautaketa-prozesua arautuko duten oinarriak onestea, zeintzuk ebazpen honen eranskinean jaso baitira.

Hirugarrena. Deialdia eta oinarriak ALHAOn argitaratzea, eta eskabideak aurkezteko epeari hasiera ematea.

Ebazpen honen kontra, administrazio bidea amaitzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo, aukeran, berraztertzeko errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo

egunetik aurrera; eta errekurtso horren ebazpen espresuaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko urriaren 14an

Funtzio Publikoko zinegotzi ordezkariak
JON ARMENTIA FRUCTUOSO

I. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehena.- Dealdiaren xedea.

1.1.- Dealdiaren xedea da Gasteizko Udaleko Segurtasun Saileko Udaltzaingoaren kidegoan destinoa duen 8003 - komisariorde lanpostuari dagozkion 4 dotazio betetzea, oposizio-lehiaketa bidezko barne-sustapenaren sistemaren bidez.

1.2.- Lanpostua A taldeari atxikita dago, A2 azpitaldeari, eta Udaltzaingoaren Eskala Exekutiboan sartuta dago. Komisariordearen kategorian.

1.3.- Osagarriak: destino-osagarria: 26. Berariazko osagarria: 520. Dedikazioa: % 120

1.4.- Eskainitako dotazioetako batek ere ez du 3. hizkuntza-eskakizun ez-nahitaezkoa.

1.5.- Lanpostuaren funtzioak eta eskumenak lanpostuaren katalogoan jasota daude. Katalogo hori Udalaren webgunean dago eskuragarri.

Bigarrena. – Parte hartzeko betekizunak:

2.1.- Gasteizko Udaleko karrerako funtzionarioa izatea eta egiazko lau zerbitzu-urte egiaztatzea Ikuskapen Eskalan, haietatik gutxienez bi urte ofizial-kategorian. Jatorrizko kategorian edo eskalan egindako egiazko zerbitzuen denbora kalkulatzeko, barne-sustapeneko sarbidea ahalbidetzen duten administrazio-egoeretan emandako denbora eta aurretik egindako praktikaldiaren denbora gehituko dira; baina, betiere, hautaketa-prozesua gainditu bada.

2.2.- Zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietan egotea, seme-alabak edo senideak zaintzeko eszedentzian egotea eta genero-indarkeriagatiko eszedentzian egotea.

2.3.- Unibertsitateko gradu-, diploma- edo lizentzia-titulua izatea. Ondorio horietarako, unibertsitate-diplomadunaren tituluaren baliokidetzat joko da lizentziaturako hiru ikasturte osorik gainditu izana, eta halaber atzerriko tituluen homologaziotik eratorritako baliokidetasunak ere.

2.4.- IT Txartelak 05 udal-multzoari lotutako gaitasun digitalen ziurtagiriak izatea.

2.5.- A eta B gidabaimenak (indarrean egon behar dute).

2.6.- Laneko Arriskuen Prebentzioko Udal Zerbitzuko Lan Osasunaren Atalaren iritziz zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea eta dagozkion eginkizunak betetzearekin bateraezinak diren osasun-arazorik ez izatea.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

2.7.- Inskripzio-tasekin lotutako betekizuna. Eskabideak aurkezteko epearen barruan, udal-ordenantzan ezarritako lehiaketa, oposizio eta oposizio-lehiaketetan parte hartzeko titulazio-taldeari dagozkion tasen arabera ordaindu izana.

Hirugarrena.- Eskabideak aurkeztea.

3.1.-Hautatze-prozedura honetan parte hartzeko, hamabost egun balioduneko epea dago, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

3.2.- Eskabidea bide telematikoz aurkeztuko da, www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprozesuak atariaren bidez. “Irekita dauden deialdiak” atariaren bidez.

3.3. – Eskatutako baldintzak betetzeko eta –hala badagokio– merezimenduak baloratzeko erreferentzia-data eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren aurkeztutako eskabide edota agiriak ez dira kontuan hartuko.

3.4.- Organo eskudunak betekizunak eta alegatutako merezimenduak egiaztatu ahal izango ditu honako hauek kontsultatuta, kasuen arabera: bere erregistroak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen erregistroak, administrazio publikoen datu-bitartekaritzarako plataforma edo ziurtagiria ematen duen erakundea.

Kasu guztietan egingo dira kontsulta horiek, salbu eta eskatzailea modu arrazoituan aurka agertzen bada eta tratamendu-jardueraren organo arduradunak aurkakotasun hori aintzat hartzen badu. Aurkakotasun arrazoitua adierazten bada, harekin batera nahitaez aurkeztu beharko dira kontsultaren xede diren jatorrizko dokumentuak.

3.5.- Probak zein hizkuntzatan (euskaraz ala gaztelaniaz) egin nahi dituzten adierazi beharko dute izangaiek eskabidean. Atal horretan ezer adierazten ez badute, probak gaztelaniaz egin nahi dituztela ulertuko da.

3.6.- Parte hartzeko eskabideari ez zaio erantsi beharko ez betekizunei ez lehiaketa-faserako merezimenduei dagokien agiririk. (Ikusi 8.2.G oinarria)

3.7.- Eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdian eskatutako baldintzak eta betekizunak onartzeko konpromisoa. Inork datu faltsurik ematen badu, hautatze-prozesutik kanpo utziko da.

3.8.- Izangaiek oinarri hauetan eskatutako baldintzak onartzen dituzte eta, eskabidea formalizatzen dutelarik, onartzen dute Gasteizko Udalak ahalmena duela erregistro ofizialetan kontsulta telematikoa egiteko titulazio akademiko ofizialak, hizkuntza-eskakizunak, emandako zerbitzuak, gidabaimenak eta abar egiaztatzeko, kontsulta-modalitate hori ezinezkoa denean izan ezik, kasu horretan dokumentazioa eskatuko baitzaie.

Laugarrena. Euskara.

Deialdi hau barne-sustapenekoa baino ez da, eta badagoenez lehendik ere IVAPek hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko urtero egiten duen deialdi bikoitz bat, ez du euskara-maila egiaztatzeko proba espezifikorik.

Bosgarrena.- Onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda.

5.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onesteko ebazpena emango du Funtzio Publikoko zinegotziak; egoitza elektronikoan (“Nire hautaketa-prozesuak”) argitaratuko da hori, bidenabar adierazten delarik izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dutela erreklamazioak egiteko eta akatsak zuzen ditzaten eskatzeko.

5.2. Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariak haiei buruzko ebazpena eman ondoren, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartuko da. Ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da bi hilabeteko epean, eta aukerako berraztertze-errekurtsoa, hilabeteko epean, egoitza elektronikoan ("Nire hautaketa-prozesuak") argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurkeztutako errekurtsoa ez bada ebatzi probak egitekoak diren egunerako, interesdunek aukeran izango dute prozesuan parte hartzea, kautelaz.

Zerrendan agertzeak ez dakar interesdunei hautaketa-prozesu horietan eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela aitortzea. Aurkeztu beharreko dokumentaziotik ondorioztatzen bada ez dutela betekizunen bat betetzen, galdu egingo dituzte prozedura honetan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak, eta jarduera guztiak baliogabetu egingo dira.

Seigarrena. Hautaketa-organoa.

6.1. Hautaketa-organoa presidente batek, hiru bokal teknikok (haietako bat Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak proposatuta), idazkari batek eta dagozkien ordezkoek osatuko dute.

6.2. Kideek inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioa bete beharko dute, eta epaimahaiek osaera orekatua izango dute emakumeen eta gizonezkoen errepresentazioari dagokionez. Hautaketa-organoetako kide guztiek trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia izan beharko dute, eta haietako batek, gutxienez, prestakuntza edo esperientzia izan beharko du enplegu publikoaren arloko hautaketan. Epaimahaikideen erdiak, gutxienez, lanpostuan sartzeko eskatzen den titulazioaren jakintza-arlo bereko titulazioa izan beharko du, eta guztiek ere maila akademiko berekoa edo goragokoa.

6.3. Hautaketa-organoak badu aholkulari espezialista bat hartzea bere lanetarako, egoki deritzon bat; aholkulari horiek beren espezialitate teknikoen arloan baino ezingo dira elkarlanean aritu. Udaleko Berdintasun Zerbitzuaren aholkularitza izango du nahitaez berdintasunaren arloan eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eremu teknikoan.

6.4. Epaimahaiak erabakiko ditu arau hauek aplikatzean sortzen diren zalantzak oro, baita arautu gabeko kasuetan nola jokatu ere.

6.5. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa. Berdinketarik izanez gero, epaimahaiburuak kalitateko botoa izango du; idazkariak, berriz, prozedura-gaietan baino ez du botoa izango.

6.6. Funtzio Publikoaren Saileko zinegotziaren ebazpen baten bidez izendatuko dira epaimahaikideak. Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera argitaratuko dira izendapenak.

6.7. Epaimahaia ezingo da eratu, ezta jardun ere, bertako kideen erdia baino gehiago, titular nahiz ordezko, bertan ez badira. Gainera, ezinbestekoa izango da epaimahaiburua eta idazkaria bertan izatea.

6.8. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako kasuak gertatzen direnean, epaimahaikideak abstenitu egin beharko dira, eta deialdia egin duen agintariari eman beharko diote horren berri. Gainera, izangaiek eskubidea izango dute haiek errekusatzeko.

6.9. Epaimahaiak, hautaketa-prozesuaren edozein unetan, jakiten badu izangairen batek ez duela betetzen deialdian ezarritako betekizunen bat, hura baztertzeko

proposamena egin beharko dio horretarako eskumena duen organoari —aldez aurretik interesdunari entzunaldia eskaini beharko dio—, eta izangaiak egindako okerren nahiz faltsutasunen berri eman.

6.10. Epaimahaiak, haren kideen arteko edozeinek eskatuta, bere esku izango du hautaketa-prozesuaren edozein faseri eragiten dion jatorrizko dokumentazioa galdegitea hautaketa-prozesuaren edozein unetan.

6.11. Epaimahaiko lehendakaria edo haren ordezkoa ordeztu beharra badago —kargua hutsik geratu delako, bertan ez direlako, gaixorik daudelako edo legezko beste edozein arrazoirengatik—, maila goreneko epaimahaikidea izango da ordezkoa. Eta maila berekoen artean, zaharrena. Epaimahaiko idazkaria ordeztu beharra badago, epaimahaiak gehiengoz erabakitzen duen kideak ordeztuko du.

6.12. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b artikuluaren ildotik, Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa ("Nire hautaketa-prozesuak") izango da hautaketa-prozesuko erabakiak, deiak, azterketa-deialdiak eta bestelako komunikazio-egintzak ofizialki argitaratzeko lekua.

6.13. Lehenengo saioan, barne funtzionamendurako araudia onetsiko du Epaimahaiak.

6.14. Epaimahaietan eta epaimahaiekin parte hartzeagatik, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan —zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoa— aurreikusitako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango da.

Zazpigarrena. Hautaketa-prozesuaren garapena.

7.1. – Hautaketa-prozesua oposizio-lehiaketa bidezkoa izango da, hau da, parte hartzen dutenen gaitasuna eta ondoriozko lehentasun-ordena ezartzeko, oposizio- eta lehiaketa-sistemak baliatuko dira, bata bestearen ondoren.

7. 2. – Lehiaketa-fasea ez da baztertzailea izango, eta lortutako puntuazioa ezin izango da kontuan hartu oposizioko ariketak gainditutzat jotzeko edo ariketa horietan lortutako kalifikazioak aldatzeko.

7.3. Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprozesuak) egongo da eskuragarri zereginen katalogoa eta egokitzat jotzen den gainerako dokumentazioa.

7.4. Ezingo da epaimahaikideekin banaka harremanetan jarri, ez zuzenean ez hirugarrenen bitartez, hautaketa-prozesuarekin zerikusia duen edozein gaiz aritzeko. Hautaketa-prozesuaren inguruan gorabeherarik sortuz gero, epaimahaiari azalduko

zaizkio (procesos.selectivos@vitoria-gasteiz.org), eta hark erabakiko du dagokiona, kide anitzeko organoa den aldetik.

Zortzigarrena. Hautaketa-prozesua.

8.1.- Oposizio-fasea. Oposizio fasean hainbat proba egingo dira, Gasteizko Udaltzaingoko komisariorde kategoriako polizia-aginterako gaitasunak eta lanpostua eta polizia-zereginak betetzeko gaitasunak ebaluatzearren. Gehieneko puntuazioa: 250 puntu.

Ebaluatuko diren gaitasunak eranskinean (programa) datoz definituta, eta honako hauek dira: ekintza, eraginkortasun pertsonala, kontrol pertsonala, zuzendaritza, sinesgarritasun profesionala, lankidetzarako jarrera, arazoak konpontzea, kudeaketa, harremanak eta autoestimua

Jarraian, oposizio-fasea osatzen duten probak zehazten dira:

Lehen ariketa. Nahitaezkoa eta baztertzailea. Lan-jarduerarekin lotutako jokabideak neurtzeko eta ebaluatzeko nortasun-testa, bai eta hautaketa-prozeduran parte hartzen duten pertsonen desegokitasun- edo egokitasun-adierazleak ere. Betiere, deialdian eskaintzen den lanpostuaren lanbide-profilari buruzkoak. 0tik 110 puntura emango dira, eta automatikoki baztertuko dira gutxienez 55 puntu lortzen ez dituztenak. Baloratu ahal izateko, item guztiei erantzun beharko zaie. Baieztapenetako bati erantzuten ez bazaio, eta galdera berari erantzun bat baino gehiago ematen bazaio, edo erantzun zuri bat edo baliogabetze-lerroan markatutako erantzun bat badago, 0 puntu emango zaizkio galdera horri dagokion eskalan.

Bigarren ariketa. Elkarrizketa pertsonala, nahitaezkoa eta baztertzailea, determinatzearren ea hautagaiek baduten egokitasunik jokabidearen eta gaitasunaren aldetik deialdian eskainitako lanpostuari dagokion profil profesionalaren eginkizunak eta atazak betetzeko. Ariketa honetan, eranskinean (programan) ezarritako gaitasun guztiak baloratuko dira. 0tik 140 puntura emango dira, eta automatikoki baztertuko dira gutxienez 70 puntu lortzen ez dituztenak.

8.2.- Lehiaketa-fasea. Gehienez lor daitekeen puntuazioa, euskararen puntuazioa kenduta: 110

Ezingo dira merezimendutzat hartu deialdian parte hartzeko eskatutako betekizunak eta baldintzak.

8.2.A. Eskala exekutiboan egindako lanaren balorazioa: 0,025 puntu, eskalan aldi baterako funtzioak bete diren egun bakoitzeko (gehienez 40 puntu).

8.2.B. Ikuskapen eskalan ofizialaren lanpostuan egindako lanaren balorazioa: 0,01 puntu, ofizialen kategorian behin betiko adskripzioan emandako egun bakoitzeko, gehienez 20 puntu.

8.2.C Ikuskapen eskalan ofizialordearen lanpostuan egindako lanaren balorazioa: 0,005 puntu, ofizial-kategorian behin betiko adskripzioan emandako egun bakoitzeko, gehienez 20 puntu.

Egindako lana atal batean baloratzeak kanpo uzten du denbora hori beste bietan baloratzea, hau da, lan egindako egun bakoitza behin bakarrik baloratu ahal izango da. Adierazitakoak kontuan hartuta, egindako lana baloratuko da, edozein izanik ere lanaldiaren ehunekoa.

Esperientzia profesionalari begira, honako hauek ere balioetsiko dira: hautagaiak ardurapeko senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran emandako denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea edo bizitza pertsonala, familia eta lana kontziliatzen laguntzea xede duten lanaldi-murrizketekin edo baimenekin emandako denbora, baita emakume enplegatu publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak baliatu dituzten denbora ere.

Funtzionarizazioen kasuan, funtzionarizatu zen lanpostuan kontratu mugagabea noiz hasi zen, hura hartuko da erreferentzia-datatzat, lanpostu horretatik bertatik lehiatuz gero.

8.2.D. Antzinatasuna.

Administrazio publikoetan egindako zerbitzutzat aitortutako antzinatasuna hartuko da kontuan, eguneko 0,001 puntu eta gehienez 10 puntu.

8.2.E. Titulu akademikoak

Sartzeko beharrezkoak ez diren beste titulu akademiko ofizial batzuk izatea baloratuko da, gehienez 6 puntu, betiere Epaimahaiaren iritziz deialdian eskainitako lanpostuarekin zerikusia badute, baremo honen arabera:

- Doktore-titulua (MECES 4): 6,00 puntu.
- Lizentziatura, ingeniaritza, arkitektura edo gradua gehi master baliokidea (MECES 3): 4 puntu.
- Ingeniaritza teknikoa, unibertsitateko diploma, arkitektura teknikoa edo gradu baliokidea (MECES 2): 3 puntu.
- Masterrak, diplomak eta unibertsitateetako berezko beste titulu batzuk, 300 ordu edo gehiagokoak: 2,00 puntu.
- Masterrak, diplomak eta unibertsitateetako berezko beste titulu batzuk, 200 ordu edo gehiagokoak, aurreko apartatuan sartu ez direnak: 1,00 puntu.

8.2.F. Prestakuntza ikastaroak.

Deialdiaren xede den lanposturako egokiak diren prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak. Gehienez 8 puntu. Atal honetan bi alderdi baloratuko dira: batetik, batzordearen ustez eskuratu nahi den lanpostuarekin zerikusi zuzena duen prestakuntza; bestetik, irakasle edo hizlari gisa egindako zabalkunde- eta prestakuntza-jarduerak. Atal honetatik kanpo geratzen dira titulazio akademikoak.

Administrazio publikoek, administrazio publikoko eskolek (IVAP, INAP, IEAP edo administrazio publikoko beste eskola batzuk) eta zentro ofizialek antolatutako prestakuntza- edo hobekuntza-ikastaroak baloratuko dira, betiere bertaratze- edo irakaskuntza-ziurtagiria zentro ofizialek eman badute.

Horretarako, hauek hartuko dira zentro ofizialtzat: unibertsitateak, Hezkuntza Ministerioaren edo autonomia-erkidegoetako hezkuntza sailen menpeko zentroak, eta elkargo ofizialak.

Ez dira baloratuko akademia pribatuek emandako ikastaroak, ezta fakultate edo eskolako ikasketa plan ofizialetako gaiei edo master edo graduondoko moduluei dagozkienak ere. Ezta ere polizia-funtzioarekin lotutako trebetasun operatiboak (tiroa, prozedurak, borroka-teknikak, kudeaketa-informatika...) mantentzearekin, errepikatutako ikastaroetara joatearekin, segurtasuneko oinarrizko ikastaroetara

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

joatearekin, udal-aplikazio informatikoetako prestakuntzarekin edo hizkuntza-prestakuntzarekin zerikusia duen formazioa edo atalak berak edo epaimahaiak lanpostuan aritzeko oinarrizkotzat jorik atalak berak antolatzen edo ematen duen formazioa edo entrenamendua.

Horretarako, espediente pertsonalari erantsi beharko zaio, udal-erregistroaren bidez eta eskabideak aurkezteko epean, dagokion ziurtagiriaz gain (ziurtagiri horretan ageri ez bada), honako alderdi hauek egiaztatzen dituen dokumentazioa: ordu-kopurua –ECTS unibertsitate-kredituengatik 25 ordu zenbatuko dira; beste kreditu batzuengatik, 10 ordu–, programa, irakasleak, asistentzia, ikastaroaren helburuak, hartzaile-mota eta abar. Parte hartzeko eskabideari ez zaio erantsi beharko ez betekizunei ez lehiaketa-faserako merezimenduei dagokien agiririk.

Ez dira aintzat hartuko 2015eko urtarrilaren 1a baino lehenagoko ikastaroak, argitalpenak, hitzaldiak, etab.

Iraupena (orduak)	Ikasle gisa	Irakasle gisa (edizio bakarra)	Irakasle gisa (edizio bat baino gehiago)
1-10	0,20	0,4	0,60
11-20	0,40	1,0	1,20
21-50	0,80	2,0	2,50
51-100	1,00	2,5	3,00
101-200	1,30	3,5	4,00
>200	1,75	4,0	5,00

8.2.G. Hizkuntzak.

Hizkuntza ofizial ez-koofizialak jakitea baloratuko da, Europar Batasunaren esparrua erreferentziatzat hartuta, eta gehienez 6 punturekin:

- B1: 1 puntu
- B2: 3 puntu
- C1: 5 puntu.
- C2: 6 puntu

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

8.3. Euskara jakitearen balioespena.

Aurreko ataletan lortutako puntuazioei gehituko zaie, eta ez du eraginik izango ezarritako gutxienekoaren kalkuluan. Baremo hau hartuko da kontuan euskara merezimendu gisa baloratzeko, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan ezarritakoaren arabera:

Egiaztatutako HE	Puntuazioa
1	18 puntu
2	36 puntu
3	54 puntu
4	72 puntu

8.4. Prestakuntza- eta praktika-fasea

Oposizio eta lehiaketa-faseetako eta euskara-probako emaitzak ikusirik, deialdian eskaini plaza adina izangai izendatzea proposatuko du Epaimahaiak praktikaldirako (hiru hilabetekoa izango da); praktikaldian, lanpostuari dagokion ordainsaria osorik jasoko dute. Kategoria horretan karrerako funtzionario izendatuak izatekotan, hautaketa-prozesuko aldi hau ere gainditu beharko dute proposatutako izangaiek. Azken fase horretan, trebetasun pertsonalak ebaluatuko dira bereziki, eta ea lanpostuan jarduteko betekizunei egokitzen ote zaizkien.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren ardura izango da praktikaldia diseinatu, ikuskatu eta ebaluatzea. Halaber, praktikaldia bukatzean, eta tutorearen proposamena aintzat hartuta, ebaluazio-proposamen bat egingo du —‘gai’ / ‘ez-gai’—, behar bezala arrazoiturik —baldintza izanik praktikaldia gainditu izana eta izangaia eskatzen den profil profesionalari egokitzea—, eta Funtzio Publikoaren Saileko zuzendariari igorriko dio.

Praktiketan dauden langileei aurretik jakinaraziko zaie zein ezaugarri duen fase horrek, zenbat iraungo duen, nor izango duten tutore, zein izango den ebaluazio-sistema eta zein prozedura dagoen ez-gaitzat jotzeko proposamenak errekurritzeko.

Hautatutako pertsonei polizia-komisariorde ikastaroa egiteko deia egingo zaie. Ikastaroa Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian egingo da, indarreko ikasketa-planaren arabera, edo Akademiaren Zuzendaritza Orokorrak izendatzen dituen zentroetan eta bulegoetan.

Ikasketa-planak baloratuko diren elementuak eta elementu bakoitzaren puntuazioak ere jasoko ditu, eta horren berri emango zaie izangaiei ikasturtearen hasieran.

Ikastaroa egiten den bitartean, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia izango da eskola-jardueretara joatetik salbuesten duen edozein lizentzia edo baimen emateko organo eskuduna.

Prestakuntza-ikastaroan zehar eskola-jardueretara joatea nahitaezkoa da, eta zerbitzu-premiatzat hartuko da baimen-eskaera ororen ondorioetarako.

Prestakuntza-ikastaroaren edozein unetan, ikaslearen espedientetik ondorioztatzen bada ezin duela gainditu, prozesutik bazter utzi ahal izango da hura, entzunaldia eman ondoren, eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez. Praktikaldia ez gainditzea ekarriko du baztertzeak.

Prestakuntza-ikastaroa amaitu aurretik nork bere borondatez utziz gero, Administrazioak eskubidea izango du uko egin duen pertsonari eskatzeko bere prestakuntzan inbertitutako zenbatekoak itzul diezazkion.

Bederatzigarrena. Emaitzak argitaratzea.

9.1. Epaimahaiaren argitalpenak egoitza elektronikoan egingo dira (“Nire hautaketa-prozesuak”).

9.2. Epaimahaiarekiko komunikazioak posta elektronikoz egin ahalko dira, eta baliozkoak izango dira baldin eta eskabidean horretarako erregistratutako helbide elektronikotik bidaltzen badira, eta behar bezala jaso dela bermatzen duen erantzuna jaso bada posta elektronikoz. Alegazioak edo erantzunak jaso izanaren baieztapena —bi noranzkoetan— ezinbestekoa da komunikazioa baliozkotzat jotzeko.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Epaimahaiak erreferentziako helbide elektronikoa adieraziko du bere argitalpenetan, eta dena delako gaiari dagokion kodea ere ezarri ahalko du, mezuak hobeto kudeatu eta antolatzearren.

9.3. Jakinarazpenak posta elektronikoz igorriz jakinaraziko zaie deialdi jakin batera aurkezten diren izangai guztiei egoitza elektronikoan ("Nire hautaketa-prozesuak") argitalpen berriak egin direla. Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla eta abisuak ez jasotzeak ez du baliogabetu edo aldatuko argitalpenean ezarritako epea.

9.4. Epaimahaiak ariketetako bakoitzaren behin betiko emaitzak onesteko hartzen duen erabakian, dagokion epearen barruan izangaiek aurkeztutako erreklamazio guztiak aintzat hartu eta erantzun zaiela joko da. Ez da erantzun pertsonalizaturik emango.

9.5. Lehiaketa-fasea amaitutakoan, Epaimahaiak, praktikaldirako izendapena egiteko, izangaien zerrenda argitaratuko du lortutako guztirako puntuazioaren arabera ordenatuta, atal bakoitzean lortutako puntuak eta azken puntuazioa adierazita.

9.6. Behin betiko emaitzei buruzko erabakiaren kontra gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko dute izangaiek, Gasteizko Udaleko Funtzio Publikoko zinegotziari zuzenduta, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

9.7. Aurreko oinarriaren ondorioetarako, aukeran izango da Epaimahaiaren idazkaritzari eskatzea eman ditzala errekurtsoa jartzeko xedearekin zerikusia duten erabakien zerrenda jasotzen dituzten ziurtagiriak. Hala balegokio, eskabide horiek egoitza elektronikoaren bidez izapidetu behar dira ("Nire hautaketa-prozesuak").

Hamargarrena.- Praktikaldirako izendapena.

10.1. Epaimahaiak 10 egun balioduneko epea ezarriko du deialdiko betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten jatorrizko agiriak (titulazioa, hizkuntza eskakizuna, titulu profesionalak...) Funtzio Publikoaren Sailean aurkezteko, sail horrek erregistro ofizialetan zuzenean lortu ezin izan baditu.

10.2.- Baldin eta, ezinbestea tarteko denean izan ezik, izangaiak ez baditu agiri horiek adierazitako epean aurkezten, edo ez badu egiaztatzen betetzen dituela eskatzen diren baldintzak eta betekizunak, izangaia ezingo da praktiketako funtzionario izendatu, eta bertan behera geratuko dira haren jarduerak oro; gainera, horrek ez du galaraziko, hala balegokio, eskabidean datu faltsuak ematearren erantzukizuna izatea.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Hala gertatuz gero, hautaketa-prozesua gainditu dutenen arteko hurrengoak —azken puntuazio-hurrenkerari jarraituz— izendatzeko proposamena egingo du organo eskudunak, bete beharreko lanpostu guztiak bete arte.

10.3.- Betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ez duten izangaiek ezingo dituzte inolaz ere lanpostuak bete.

10.4. Epaimahaiak, aintzat harturik titulazio-betekizun eta/edo hizkuntza-eskakizun egiaztatuei buruz Funtzio Publikoak emandako txostenak, eta halaber eskainitako lanpostuak eta Udaleko Zerbitzu Medikuak emandako gaitasun-kalifikazioak, eta orobat aintzat harturik lehiaketa- eta oposizio-aldietan lortutako emaitzen baturaren guztirako puntuazioa (zeinari euskararen ezagutzaren balorazioa gehituko baitzaio), praktikaldirako izendapen-proposamenak argitaratuko ditu, eskainitako plazen kopurua gainditu gabe.

10.5. Berdinketak ebazteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan, hurrenez hurren:

10.5.1.- Berdinketa hausteko lehen irizpidea: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21 artikuluan jasotakoa hartuko da aintzat. Gaikuntza-maila bera izanez gero, emakumeei emango zaie lehentasuna % 40 baino gutxiago diren kidego, eskala eta kategorietan, salbu eta beste izangaiarengan bestelako arrazoirik egokitzen bada —sexu bereizkeriarik gabe—, neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duenik, hala nola lana lortzeko zailtasun bereziak dituztenen multzoetakoren batekoa izatea. Ondorio horietarako, izangaien artean gaitasun bera dagoela ulertuko da hautaketa-prozesuaren azken puntuazioan berdinketa gertatzen denean, hau da, kasuan kasuko merezimenduak batu ondoren.

10.5.2.- Berdinketa hausteko bigarren irizpidea: oposizio-faseko lehenengo elementuan puntuazio handiena lortu duena proposatuko da, eta, hurrenez hurren, goranzko ordenan.

10.5.3.- Berdinketa hausteko hirugarren irizpidea. Oposizio-faseko lehenengo elementuan puntuazio handiena lortu duena proposatuko da, eta, hurrenez hurren, goranzko ordenan.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Hamaikagarrena. Karrerako funtzionario izendatzea eta lanpostuaz jabetzea.

11.1. Prestakuntza- eta praktika-fasea amaitu eta gainditu ondoren, hautatutako pertsonak karrerako funtzionario izendatuko dira, Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren bidez.

11.2. Izendatutako pertsonak behin betiko atxikiko dira hautatutako destinora, lehiaketan, oposizioan eta prestakuntza-ikastaroan lortutako puntuazioen metaketan oinarrituta.

11.3. Lanpostuaz jabetu aurretik, bateraezintasunik ez dutela aitortu beharko dute izendatutako pertsonek. Ezarritako epean lanpostuaz jabetzen ez direnek galdu egingo dituzte Gasteizko Udaleko karrerako funtzionario izateko eskubideak, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Kasu horietan, eta baita ere hautatutako pertsonek izendatu aurretik edo lanpostuaz jabetu aurretik uko egiten dutenean, edo lanpostuaz jabetzeko unean bertan sektore publikoan zerbitzuak emateagatiko borondatezko eszedentzia eskatzen dutenean —lanpostua gorde gabe eta egiazko laneratzerik gabe—, Funtzio Publikoaren Sailak beste izendapen-proposamen bat egiteko eskatuko dio epaimahai kalifikatzaileari, hautaketa-prozesuaren azken emaitzen puntuazio-ordenaren arabera dagokien izangaien alde.

Hamabigarrena.- Aurkaratzeak

12.1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean adierazitako moduan eta kasuetan aurkaratu ahalko dituzte interesdunek oinarri orokor hauek edo oinarrien eta epaimahaiaren jardueraren ondorio diren egintzak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ERANSKINA: Oposizio-fasean ebaluazioan parte har dezaketen gaitasun eta azpigaitasun profesionalen zerrenda.

Parentesi artean, lanpostu honen udal-katalogoko zuzendaritza-funtzioko taldeari dagozkion gaitasunak adierazten dira.

Gaitasuna: Ekintza. (erabakiak hartzea, plangintza eta antolaketa, administrazioa eta kudeaketa, antolatze sena)

- Erantzukizuna: hartutako betebeharren eta hartutako konpromisoak betetzeko eskakizunaren jakitun izatea une oro, eta horiek betetzeko behar den ahalegina egitea. Betebehar sena duen pertsona. Fidagarria lanean...
- Ekimena: kemena, metodo berriak erabiltzen saiatzeko eta norbere buruari motibazioa emateko prestasuna, nagusiek gehiegi akuilatu beharrik gabe. Edozein egoeratan, ekimen posible eta egoki guztiak abiarazten ditu. Hobekuntzetarako proposamenak egiten ditu.
- Zeregina xede hartuta aritzea: bere lana ongi egiten du, eta ohartzen da ezen, helburuak lortzekotan, zeregin zehatza xede hartuta jardun behar duela; joera du prozesuak kontrolatzeko eta kide bakoitzaren lan zehatza ondo ezagutzeko.
- Lorpenaren beharra (gainditzea): joera du helbururen bat lortzeko bidea ematen duten konpromisoak onartzeko, eta bere lana planifikatu egiten du, denbora helburu horren arabera egituratuz. Estandar edo jomuga garaiak ezartzen ditu, haiek iristea bere lanaren mende egon ohi da. Badu barne-motibazioa. Bere lana hobetzeko interesa agertzen du.

Gaitasuna: Eraginkortasun pertsonala. (erabakiak hartzea, plangintza eta antolaketa, lanerako gaitasuna).

- Erabakitzeko gaitasuna: aukera jakin baten alde egiteko gaitasuna, hura gauzatzea posible den denboraren barruan, haren zalantza eta arriskua ezagututa eta onartuta. Muturreko egoeretan, badaki garrantzitsuena egitea dela.
- Determinazioa – Erabakitzaile izateko gaitasuna: konponbide azkarrak behar dituzten egoera gatazkatsuak edo ziurgabetasun-egoerak tratatzeko eta konpontzeko trebetasun berezia duen pertsona. Prestasuna izatea erabaki zailak hartzeko, pertsonak inplikatuz erakundearen onerako. Abian dauden proiektuen jarraitutasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak abian jartzeko gaitasuna, atzeratzea saihestuz.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

- Plangintza – Antolaketa: planak ezartzeko gaitasuna, lortu beharreko helburuak eta haiek lortzeko jarraitu beharreko etapak adierazita. Aldagaien arabera aldaketa-beharrak identifikatzea eta etorkizuneko planen lider izatea. Arriskuak identifikatzea eta kontingentzia-plan alternatiboak prestatzea.
- Autoeraginkortasuna: pertsona hauen ezaugarria da ekintza handiak egitea eta emaitzak lortzea gutxieneko energia eta baliabide kopuru bat mobilizatuz. Gaitasun handia dute beren lanarekin lortu nahi dituzten helburuak lortzeko. Lanari kalitatea ematen dio.

Gaitasuna: Kontrol pertsonala. (Lidergoa, lantaldeen zuzendaritza, giza harremanak, erabakiak hartzea)
- Egonkortasun emozionala: egoera zailetan ere zuzen eta neurritsu irauteko gaitasuna, gogoa lasai atxikiz eta judizio inpartzialez. Erreakzioak egoerak eskatzen duenaren araberakoak izaten ditu, eta jarraitutasun bat izan ohi du gogo-aldarteetan.
- Estresarekiko tolerantzia: gizabanakoarentzako presio handiko egoera luzeetan lasai egoteko eta eraginkortasunez funtzionatzeko gaitasuna, eta kanpoko estimulu bortitzak azkar gainditzekoa.
- Autokontrola: pertsona hauen ezaugarria da bizi-ikuspegi zaindua eta kalkulatua izatea, ekin aurretik programatua. Pertsona hauek ez dira emozioen mende erortzen, eta ezagutzen dituzte beren desirak. Sozialki arduratsuak izan ohi dira, eta beren autoirudia zaintzen dute.
- Porrotaren eta frustrazioaren gaineko kontrola dute (niaren indarra): porrotari aurre egiteko gaitasuna, nork bere burua ulertzekoa, zentzuzko helburuak ezartzekoa eta beren burua kontrolatzekoa.

Gaitasuna: Zuzendaritza. (Lidergoa, lantaldeak zuzentzea; giza harremanak; erabakiak hartzea; plangintza eta antolaketa; antolatze sena; legeria, araudia, metodoak, teknikak eta tresnak ezagutzea; lanerako gaitasuna).
- Lidergoa-Inpaktu pertsonala: inpresio ona proiektatzeko trebetasuna, arreta eta errespetua inposatzeko trebetasuna, laguntzaileengan konfiantza-giroa erakusteko trebetasuna. Lankideak lantaldearen funtzionamendu egokian inplikatzeko eta erantzule sentiarazteko trebetasuna. Besteen erabakietan eta ekintzetan eragiten du, haien prestigio pertsonalean, konfiantzan eta lortutako elkarrekiko errespetuan oinarrituta.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

- Zuzendaritza: besteei zer egin behar den jakinarazteko eta jarraibideak bete daitezen lortzeko gaitasuna, laguntzaileen lankidetza lortzekoa, erakundearen ongia gogoan izanik talde eraginkor bat sortzekoa. Emaitzak lortuko direla ziurtatzen du, lehentasunak identifikatzen lagunduz eta jardunaren jarraipen egokia eginez.
- Objektibotasuna: datu objektiboetan oinarritutako diagnostikoak eta interpretazioak egiteko joera, lehentasun pertsonalek baldintzatu gabe eta gertaerak behar bezala baloratuta. Egoeratik independizatzeko eta errealitatearen ikuspegi ona eratzeko trebetasuna.

Gaitasuna: Sinesgarritasun profesionala. (giza harremanak; antolaketa sena; legeria, araudia, metodoak, teknikak eta tresnak ezagutzea)
- Osotasun pertsonala – Etikotasuna: bidezkoa eta egokia denari egokituta jarduten duen pertsona. Zuzena da bere barnean ere. Etengabeko prestasuna du oinarrizko printzipio etikoak errespetatuz jarduteko. Besteentzako portaera-eredu gisa jarduten du, sinesgarritasuna transmitituz, arauak eta prozedurak betez eta betearaziz. Pertsona zintzoa eta legeak betetzen dituena. Legez kanpoko tentazioei edo etikoak ez diren tentazioei aurre egiten die.
- Diskrezioa eta errespetua: hitz egiteko, jarduteko eta informazio konfidentziala baliatzeko zuhurtzia, zuzentasuna eta zentzua erakusten duen pertsona. Justizia eta tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzen ditu, lantaldean berdintasuna eta kohesioa bermatuko duten irizpideak finkatuz. Lankideak errespetuz eta gizalegez tratatzen ditu.

Gaitasuna: Lankidetzarako joera izatea. (Lidergoa, lantaldeen zuzendaritza, lanerako gaitasuna)
- Talde- eta lankidetza-espiritua: lan egiteko eta besteei lan eginarazteko gaitasuna, elkarri lagunduz erantzun proaktiboa eta positiboa lortzeko. Taldearen emaitzak lortzeko elementu erabakigarria da. Bere esperientzia eta ezagutzak espontaneoki transmititzen ditu. Baldintzarik gabe laguntzen die ikaskideei. Multzo batzuetatik eta besteetatik taldeak eratzen ditu, elkarrekiko helburuak ezarriz. Informazioa biltzen du bakoitzaren ezaugarri pertsonal, profesional eta ahalmenei buruz, erantzun egokia emateko. Lan-bileretan parte hartzen du erraztaile gisa.
- Moldagarritasuna: jokabide baten izaera, egitura edo eginkizuna aldatzeko gaitasuna, kanpoko baldintza fisiko edo sozialetara egokitzearren eta jokabide harmoniko eta

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

esker oneko bat lortzearren epe labur batean. Ohikoak ez diren jardueretarako eskaintzen du bere burua bere borondatez, eta eraginkorra da jarduera horietan. Egoera bakoitzaren inguruabarrak kontuan hartzen ditu eta bere lidergo-estiloa egoera horretara egokitzen du.

Gaitasuna: Arazoak konpontzea. (Erabakiak hartzea, plangintza eta antolaketa, administrazioa eta kudeaketa, legeria, araudia, metodoak, teknikak eta tresnak ezagutzea, lanerako gaitasuna).

- Arazoei aurre egitea eta konpontzea: egoera edo arazo bati buruzko datuak aztertzeko gaitasuna, eta arrazoiketaren bidez ondorio edo konponbide batzuetara iristeko gaitasuna, konponbide horiek ebaluatuz eta hautatuz. Egoera arriskutsua edo desatsegina izan daitekeen baten aurrean norberaren barneari gaina hartzeko eta aintzat hartua izateko gaitasuna. Hautemandako arazoak konpontzeko alternatibak bilatzen ditu, eta arazoak ez konpontzearen ondorioak eta eraginak baloratzen ditu.
- Sormena: arazoak konpontzeko informazio eta teknika ezohiko edo originalak aurkitu eta erabiltzeko gaitasuna. Ideia eta konponbide berriak sortzeko gaitasuna; gogoko du irudimen handia eskatzen duten arazo ezezagunei aurre egitea. Arazo ezezagunak hautemateko trebetasuna. Pertsona berritzailea eta esperimentatzailea, bere erantzukizun-eremuan berrikuntza-espazioak sortzen dituena, zeintzuek eragiten baitute langileek erakundearentzat baliagarriak izan daitezkeen jardunak egitea edo metodologia berriak ezar daitezen proposatzea.

Gaitasuna: Kudeaketa. (Lidergoa; lantaldeak zuzentzea; erabakiak hartzea; plangintza eta antolaketa; administrazioa eta kudeaketa; antolaketa sena; legeria, araudia, metodoak, teknikak eta tresnak ezagutzea).

- Negoziazioa eta kudeaketa: emaitza jakin batzuk lortzeko, gai bat bide diplomatikotik lantzeko trebetasuna. Gatazka baten konponbidea alderdiekin negoziatzeko gaitasuna. Bere taldeko lankideak adoretzen ditu interesatzen zaizkien edo kezkatzen dituzten gaiak azal ditzaten.

Gaitasuna: Harremanetarako: (Lidergoa, lantaldeen zuzendaritza, giza harremanak).

- Jendetasuna: pertsonekin adiskidetasunezko harremanak sortzeko eta mantentzeko gaitasuna. Jende gehiagorekin egotea dakarten jarduerak egitea gustatzen zaio. Pertsona irekia eta komunikatiboa bere harremanetan. Taldekideek egindako

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

lanarekiko interesa agertzen du, eta eskatzen diotenean, aholkuak ematen dizkie. Parte hartzen duen bileren zuzendaritza eta dinamizazioa bere gain hartzen ditu. Kanal informalen erabilera sustatzen du.

Gaitasuna: Autoestimua. (Lidergoa)

- Norberarenganako konfiantza eta segurtasuna: pozik dago bere buruarekin, bere burua besteekin alderatuta iritzi ona ateratzen du bere buruari buruz, eta konfiantza du bere gaitasunetan. Bere irizpide propioa du. Bere jarduera propioak zuzentzeko, erakundearen helburuak bere gain hartzeko eta bere egitekoek eta kanpoko presioek eragiten ez uzteko joera.

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.10.28 06:52:22 Z